



Jende asko bildu zen Petritegi sagardotegian aurteno sagardo berria dastatzeko. MADDI SORIOA/AZKI PRESS



Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak ere sagardotegian izan ziren. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS



Sagardotegiko menuaz gozatu zuten Petritegira joan ziren lagunek. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

Sagardoarekin dator **jende pilaketa**

Txotx garaian jende asko garotzen da egunero Astigarragatik eta Hernanitik, batez ere asteburuetan.

E. Z

Hernanin, duela 11 urte Txotx Batzordea sortu zuten, kudeaketa hobetzeko asmoz. Sagardogileek, tabernariak, Alde Zaharreko bizi-

lagunek, Udalak eta Tolare Kofradiak osatzen dute batzordea. Talde bakoitzak bere interesak dauzka, eta ez da erraza izaten denen arteko ados jartzea. Altzue-ta sagardotegiko langilea da Ibon Alkorta, baita Txotx Batzordeko kidea ere.

Alkortaren hitzetan, gaur egun inoiz bizitako une gogorrenak bizitzen ari dira, polemika handia

sortu baita txotx garaia inguruan. «Kanpotik etorritako jende berriari ez diogu ongi irakatsi sagardotegiaren kulturaren barnean zer dagoen, eta agian hori izan daiteke akatsa», azaldu du Alkorta sagardogileak. Kexa gehienak txotx garaian sortutako zaratarengatik eta zaborrarengatik izan dira, sexu erasoek ere gora egiten dute-

la ere zabaldu da. Alkortaren ustez, konpondu beharreko gauzak daude, eta gauza txarrak gerta ez daitezkeen lanean jarraitu beharra dago. Hala ere, iaz gertatutako kontu jakin batzuek oihartzun handia izan zutela uste du batzordeko kideak, eta hobetu ziren aldeak ez zirela aipatu.

«Iaz aurreko urteetan baino

salaketa gutxiago egon ziren Udaltzaingoetan, eta, plastiko gutxiago sortu zen», argitu du sagardogileak. Hernanin elkartzaren jendetza ez da sagardotegietara joaten den jendea soilik, eta jende guztia kontrolatzea lan zaila izaten da. Herriko udaltzainek segurtasun neurriak handitzen dituzte, eta lankide konpurua handitu egiten dute.

«Bata bestearenganako errespetua lortzea da gakoa. Herri librea eta bizia nahi badugu, bakoitzak bere burua neurtu behar du», azpimarratu du Alkortak.